

**2003KO ABENDUAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Laua.

**HILABETEA:** Abendua.

**URTEA:** Bi mila eta hirua

**HASIERAKO ORDUA:** Hemeretziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Pello Garaialde Goikoetxea  
Arantza Aseginolaza Azkargorta  
Imanol Aranburu Gutierrez  
Juan Martin Aldaregia Etxebarria  
Jon Olano Arrese  
Malu Valles Fernandez  
Ana Asla Egialde  
Jon Kortaberria Lasa  
Jose Antonio Sanchez Gutierrez  
Alfonso Segade González  
María Pilar Vispo Chamosa  
Julio Herreros Serna  
Iñaki Saldaña Herrero

**ETORRI GABEAK:** Aitor Aldasoro Iturbe  
Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga  
Gonzalo Zaldo eta Arana

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2003ko urriaren 30eko aktaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jn.ak (EB/IU): Aprobación.

Julio Herreros jn.ak (PP): De acuerdo.

Jose Antonio Sanchez jn.ak (PSOE-PSE-EE): “En el acta hay una pequeña ausencia, que creemos que se tiene que recoger. En la página 12, donde dice que José Antonio Sanchez ha preguntado si es posible dejar este tema fuera de la modificación de créditos, en primer lugar nuestro grupo planteó que se votase por separado a ser posible y la contestación exacta no fue la que ahí se indica sino que la contestación exacta fue que “ese es un problema nuestro y que se votará conjuntamente.”. En consecuencia, falta que se ponga lo siguiente: “el Sr. Alcalde responde que es un problema nuestro y que se votará todo en su conjunto.”

Jose Antonio Sanchez jn.ak (PSOE-PSE—EE): “Nosotros tenemos memoria y queremos que se recoja tal cual.”

Alkate jaunak. “Nik eskatzen dut zinta entzuteko eta horrela bada jar dadila. Hurrengo bilerarako argitzea eskatuko nuke.”

Aurreko batzaraldian talde sozialistako bozemaileak esandakoaren hitzez hitzeko transkribapena egin da eta baita Alkate jn.ak une hartan erantzundakoarena ere, hots, bozketa egin aurreko unekoa alegia:

*Jose Antonio Sanchez jn.ak (PSOE-PSE-EE): “¿No es posible separar este tema del resto de...?, porque estamos de acuerdo con el conjunto, pero en este tema francamente, a fecha de hoy necesitamos más información para poder votar a favor.”*

*Alcalde jn.ak (EAJ/PNV-EA): “Eso es vuestro problema. Yo simplemente os pido..., esto es un paquete conjunto y lo veis.”*

## **2.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA:**

a- 1. Sektorearekiko 18. HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketaren irizpideak eta helburuak onartzea.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA), hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

## “AURREKARIAK

18. Hirigintza Arearekiko eta 1. Sektoreko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari buruz 2003ko urriaren 14ko hirigintza-batzordeak egindako proposamenaren ondorioz Planeamendu Erregelamenduaren 125. artikulua dioena betez, aipatu dokumentua jendaurrean jarri zen, 2003ko urriaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2003ko urriaren 17ko Berrian eta 2003ko urriaren 17ko Diario Vascon 30 eguneko epean iragarkiak argitaratuz.

Legez ezarritako epean, GOI-ETXE, S.A.ren ordezkari Pedro Armendariz Imaz jaunak sinatutako alegazioa aurkeztu da eta 2003ko abenduaren 1eko datarekin ondorengo txostena eman da:

*“Idazki hori arretaz irakurrita, ondorengoak atera daitezke:*

*Lehenengo iradokizunak, idazkiaren egileak ordezkatzeko duen Goi-Etxe S. A. enpresak 1. Sektorearen garapen egoiliarrekin duen lotura adierazten du eta bertan eraikitzeko aurreikusitako eraikinekin duten egikaritze-maila aipatzen du.*

*Bigarrenak berriz, arloa zabaldu izanagatik sortutako hirigintzako gastu osagarriak zenbatekoak diren ez dakiela dio eta horiek zehaztu beharra dagoela adierazten du.*

*Hirugarrenak eta azkenak zera dio, ekimen horren berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetik jaso duela eta oso atsekabetua dagoela bestelako berririk bidali ez zaiolako.*

*Iradokizunen edukiak aztertuta, hiruetako ezeinek ere ez du erasaten jendaurrean jarrita dagoen agiriaren edukia, eta esan beharra dago, Sektorea handitzeak dakartzan hirigintza-karga berriak, Arauen, Egitasmo Partzialen, Hirigintza-proiektuaren eta Konpentsazio-proiektuaren garapeneko agirietan zehaztuko direla, bakoitza bere unean eta bere edukiak izan behar dituen doitasun eta zehaztasunekin.*

*Hori guztia dela bide, aurkeztutako iradokizunak kontuan ez hartzea proposatzen dut.”*

Horren ondorioz, Planeamendu Erregelamenduaren 125,3 artikulua xedatutakoa betez, Udalbatzari gehiengo absolutuarekin onartu beharreko (ELOLEaren 47,3i artikulua), ondorengo proposamena egiten zaio:

**Lehenik.** Txosten teknikoaren arabera, aurkeztutako alegazioa deuseztatzea ebazpena onartzea. .

**Bigarren.** 18. Hirigintza Arearekiko eta 1. Sektorearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa lantzeko behar diren irizpideak eta irtenbideak onartzea.

**Hiugarren.** Erabaki honen berri idaztaldeari ematea, hasierako onespenerako dokumentua presta dezan.”

b- 1. Sektorearekiko eta 18. HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketaren hasierako onespena.

### **AURREKARIAK**

Udalbatzari 18. HA eta 1. Srekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa lantzeko irizpideak eta irtenbideak onartzeko proposamena egin zaio eta ..... (e)an egindako bileran onartu dira.

Horren ondorioz eta Planeamenduko Erregelamenduaren 125. artikulua eta ondorengoek diotenaren arabera, Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

**Lehenik.** 18. HArekiko eta 1. Srekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea, dokumentuak onartutako irizpide eta irtenbideak jasotzen dituelako.

**Bigarren.** Espedientea jendaurrean hilabeteko epean, jartzea iragarkia GAOn, Berrian eta Diario Vascon argitaratuz, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez, beraz legeak ezartzen duen quorumarekin, onartu da proposamena.

**3.- XEHETASUNEZKO AZTERLANA.** 4. HAKo Xehetasunezko Azterlanaren Testu Bateratuaren onespena.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA), hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“GAIA: 4. HArekiko Xehetasunezko Azterlanaren Testu Bateratua onartzea.**

## **AURREKARIAK**

2003ko azaroaren 3ko datarekin, Udalbatza Osoak behin betiko onespena eman zion 4. HAKo 4.1 EUko Xehetasunezko Azterlanari, Konpentsazio Proiektua onartu aurretik Testu Bateratua aurkezteko baldintzapean.

2003ko azaroaren 6ko datarekin, Testu Bateratua aurkeztu zen eta 2003ko azaroaren 10eko datarekin 4. HAKo 4.1 EUko Konpentsazio Proiektua onartu zen.

Ondoren ohartarazi da, Xehetasunezko Azterlanak ez duela jasotzen 2003ko otsailaren 20ko erabakia, 4. HAKo Arau Subsidiarioen aldetari buruzko alegia, hegaldatuei dagokiena. Horren ondorioz, 2003ko azaroaren 26ko datarekin Testu Bateratu berria aurkeztu da, onartutako Konpentsazio Proiektuaren kalterik gabe.

2003ko abenduaren 1ean, udal-arkitektoak txostena eman du eta adierazi du dokumentua zuzena dela eta Arau Subsidiarioen xehetasunak betetzen dituela.

Horren ondorioz, batzorde honek Udalbatzari proposamen hau egiten dio:

**Lehenik.** 2003ko azaroaren data duen 4. HAKo 4.1 EUko Xehetasunezko Azterlanaren Testu Bateratua onartzea.

**Bigarren.** Ebazpen honen berri Promotora del Goierri, S.A.ri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

**4.- IZENDEGIA.** Ezkiaga auzoan babes ofizialeko etxebizitzetara zenbakiak jartzea.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA), hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“37. HAN dagoeneko Babes Ofizialeko etxebizitzetara 2. Eraikina eraikitzeke indusketa-lanak hasi direla eta laster 60 etxebizitzeko beste eraikin

bat Murumendi ikastetxearen alboan egingo dela kontuan hartuta, eraikin horiei dagozkien zenbakiak izendatu behar dira.

Proposatzen da honela zenbatzea: Ezkiaga Etorbidea, 1A, 1B, 1C

60 etxebizitzako eraikina. Mariarats kaleko 3 zenbakiarekin hasiko litzateke eta hurrenez hurreneko zenbaki bakoitiek jarraituko luke. Txaletak zenbaki berrien arabera, aldatu egin beharko luke.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

**5.- AZUBI, S.M.ek EGINDAKO LAGAPENA.** Espazio publikorako lursailak onartzea.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA), hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

**Lehenik.** AZUBI, S.M.k lagatako ondorengo lursaila onartzea:

2000ko maiatzaren 8an behin betiko onartutako Barne Berrikuntzako Egitasmo Bereziaren arabera 18. HAKo 18.1 Unitate Egikaritzaillearen Konpentsazio Batzordetik ondorioztatu diren lursailen zerrendatik gelditutako Lurzati Hiritar Erresultantea (LHE):

Berrehun eta berrogeita zortzi metro eta sei dezimetro karratuko azalera du (horietatik 107,60 m<sup>2</sup> zoladura jarrita daukan eremua da eta 140,46 m<sup>2</sup> lorategia). Mugak hauek ditu: Iparraldetik eta Hegoaldetik; v.z. ondorioztatutako lursaila Udalarri lagatakoa eta gelditzen den jatorrizko finka; Ekialdetik; 18. HAREN muga eta gelditzen den jatorrizko finka; Mendebaldetik; Udalarri lagatako v.z. ondorioztatutako lursaila eta 18 HAKo muga.

**Bigarren.** Patxi Plazaola Muguruza Alkateari onespren-dokumentua sinatzeko baimena ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

**6.- HERRI-BIDEAK.** Udalerriko herri-bideen azterketa behin betiko onartzea.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA), zerbitzu-batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“AURREKARIAK**

2003ko otsailaren 19an Udalbatzak hasierako onespena eman zion Beasaingo Herri-bideen azterketa-lanari.

Onartu ondoren erakusketa publiko bat egin zen 2003ko martxoaren 27an eta ondoren alegazio-epealdia ireki zen 2003ko uztailaren 12ra arte.

Epealdi horretan, pertsona batzuk Udaletxera etorri ziren planoak kontsultatu eta zenbait datu gehitzera. Hbrietatik, alegazio bat aurkeztu zuen pertsona bakarra Jose Maria Iraola Aranburu (Muxika baserrikoa) izan zen.

Alegazioak aurkezteko epean hiru aurkeztu ziren, bide desberdinei aipamena eginez. Aurkeztutako alegazioak eta 2003ko azaroan ekipo teknikoak emandako txosten teknikoa, ondorengo da:

- **JOSE MARIA IRAOLA ARANBURU, 2003ko Apirilaren 23a.**

Alegazioak EP-9 bidea aipatzen du. Bere etxe aurrean itxitura bat jartzeko baimena eskatzen du, bide horretan igarobide publikorik inoiz ez dela izan argudiatuz.

**KONTUAN HARTZEKOAK**

Udaletxean, zerbitzu-teknikariarekin (Jose Ignazio Aramendi) bildu ondoren, teknikariak azaldu du bide horren zoladurarentzat dirulaguntza ez zela Muxikako etxe-atariraino eman, baizik eta lehenago dagoen autobidea zeharkatzeko pasabideraino.

Ondorioz, EP-9 bidearen luzera pasabideraino moztea erabaki da, ondorengo bide-zatia izaera publikorik gabe geldituz.

Beraz, egokiena iruditzen zaion erabakia har dezake.

- **FKO. JABIER MUJICA RAZKIN, sarrera-data 2003ko ekainaren 26a. 1.813 zk.**

Inbentario barruan, Arrieta baserritik Olazar aldera zihoan bide bat sartzeko eskatzen du, azkeneko baserri horren gorputz-bidea zela argudiatuz.

**KONTUAN HARTZEKOAK**

Jasotako iritziak aztertu ondoren, Jabier Mujika eta Abarizketa beheko biztanleek Arrieta baserriaren gorputz-bidea 9. herri-bidean zehar Gaztelurantz zela aitortu zuten.

Iritziak kontrajarriak direla ikusita, alegazioa ez onartzea proposatu da.

- **INO EGUREN GALPARSORO, sarrera-data 2003ko uztailaren 10a, 1.985 zk.**

Zabalondo baserriko biztanlea da. Ez du alegazio formalik aurkeztu eta beraiek Beasain, Gudugarreta edo Garinera joateko bideak zeintzuk ziren aipatzen du. Zabalondotik Lekuberrira doan bidea, Zabalondo baserriaren gorputz-bidea zela dio.

#### KONTUAN HARTZEKOAK

Lan honen helburuetako bat Gorputz-bideak bide-sarearen barruan datu historiko interesgarri bezala jasotzea denez, duten erabilera publikogatik batez ere, Zabalondotik Lekuberrira doan bidea inbentarioaren barruan sartzea proposatzen da, Gorputz-bideei dagokien atalaren barruan.

- **ROSA MARIA CAÑAS URBIZU.** Sarrera-data 2003ko uztailaren 17a, 2.039 zk. Jose Ramon Dorrnsoro Murgiondo, Antonio Berbel Perez eta Berbel Aestarán anai-arreben izenean.

#### **Aurkeztutako alegazioan honako 5 bide hauetaz hitz egiten da:**

+ **Agerrezabalgo bidea – 7. zk.** Pribatua dela diote, bide-zorpeko igarobide batekin Agerre, Agerrezabal eta Beatxurreta baserrietara doana eta inoiz ez duela bat egin EP-6 Otañoko bidearekin.

#### KONTUAN HARTZEKOAK:

**- Iritziak: Olazar, Otaño, Abarizketa goikoa eta behekoa, Beatxurreta eta Agerrezabal baserrietako biztanleek herri-bidea kontsideratzen dute oso-osorik. Agerre eta Andramendi baserrikoek, berriz, Agerretik herrirainoko zatia bakarrik onartzen dute herri-bide bezala.**

Esan beharra dago, Andramendi baserriko jabeak (Jose Dorrnsoro Murgiondo) bide honi buruz galdetzerakoan, herri-bidea zela aitortu zuela. Bere desadostasuna agertu zuen bidearen zabalera eta erabilerekin ere. Zabaltzeko, batetik lurra eman behar izan baitzuen eta bestetik ez baitzuen kamioak bertatik pasatzea nahi.

- Eskriturak: Agerrezabal baserria, 262 Finka, 260 Tomoa, 141 Folioa, bere lursailak neurtzerakoan, zeharkatzen dituzten gurdi-bideak deskontatzen ditu. Andramendi baserria, 220 Finka, 230 Tomoa, 2 Folioa, baserriak eta Etxeazpiko lursailek iparraldera gurdi-bidearekin dute muga.

- Udalerriko planoak (3. orria, eskala 1/1000), bide honen hasiera azaltzen da.

Jasotako iritzi eta eskrituren arabera, nabaria da bidea publikoa dela, ez ordea igaro dezakeen ibilgailu-mota.

Alegazioa ez onartzea proposatzen da eta herri-bide bezala mantentzea. Baita Jose Dorronsorekin elkarrizketatzea ere, erabileraren inguruko arazoak konpontzeko.

+ **Otañoko bidea – EP-6.** Izaera publikoa ezin duela izan dio alegazioak, Olazar eta Otaño baserriak eta A. Berbelek berak eraiki baitzuten, bide-zorpeko igarobide bat hiru jabeentzat sortuz.

#### KONTUAN HARTZEKOAK

- Udaletxean dauden datuen arabera, 1986ko abenduak 15ean bide horren zorua hobetzeko erabakia hartu zen.

Datu hau oinarritzat hartuz, eta eraikuntza edo mantenurako dirulaguntzak jaso dituzten bideak inbentarioan jasotzeko irizpidea jarraituz, alegazioa ez onartzea proposatzen da eta EP-6 bidea inbentario barruan mantentzea.

+ **Olazarko bidea – 8. zk.** Onartzen du bidea publikoa dela eta Olazar baserrirako sarrera-bidea zela. Gaur egun Olazar baserriak beste sarrera bat du eta bide hau abandonaturik egonda, erabiltzen ez denez, ezin dela berreskuratu dio.

#### KONTUAN HARTZEKOAK

**Alegazio honetan, pentsatzen dugu 1. Herri-bidearen zati bati egiten diola aipamen, EP-6 bidearen iparraldera eta horren paraleloan dagoena, Berbel familiaren etxe inguruan dagoenari alegia. Hau kontuan hartuz ematen dugu gure iritzia.**

**1. Herri-bidea Beasaindik Azpeitira joateko bide nagusia zen. Gaur egun zati batzuk abandonaturik daude, baina gehiena ongi dago eta erabiltzen da. Rosa Maria Cañas abokatuak onartzen duen bezala, bide hori herri-bidea da eta une honetan bide-zati bat ez erabiltzeak ez du esan nahi bidearen izaera publikoa galtzen denik, ondorioz alegazioa ez onartzea proposatzen da.**

+ **Malparako bidea – GB-15.** Publikoa ezin dela izan dio, Antonio Berbelen lursailetan baitago kokatua.

#### KONTUAN HARTZEKOAK:

Lan honen helburuetako bat Gorputz-bideak deituriko bideak inbentarioan jasotzea izan da, gure kulturen duten errotzea, interes historikoa eta erabilera publikoagatik.

**Nahiz eta bidearen zatirik handiena Antonio Berbelen lursailetatik igaro eta zentzurik ez izan bere erabilerak, lehen aipatutako helburuen arabera alegazioa ez onartzea proposatzen da eta Gorputz-bideak atalean mantentzea.**

+ **Gudugarretako bidea – 12. zk.** Bide pribatua dela dio, Agerre goena, Agerre barrena eta Agerre erdikoa baserrietara bide-zorpeko igarobidearekin. Baieztapen honen oinarria, udalak bere garaian ur-hodia pasatzeko egin zion diru-ordainketa da.

KONTUAN HARTZEKOAK

**- Iritziak: Loinatz azpikoa, Agerre barrena eta Agerre goena, Ondarre, Saltsamendi eta Iturralde baserrietako biztanleek herri-bidea dela diote.**

**- Eskriturak: Agerre erdikoa baserria, 363 Finka, 351 Tomoa, 248 Folioa. Bertan dio, baserriaren inguruan plano batean kokaturiko lursailak hegoaldera gurdi-bidearekin egiten dutela muga, baserri honetatik Loinatz baserrira bideratuz.**

Antonio Berbelen eskriturak: kasu batean lursailak ekialdera, bidearekin muga egiten duela dio (12. poligonoa, 24. lursaila) eta beste kasu batean ez du aipamenik egiten (12. poligonoa, 22. lursaila).

Kasu honetan, udalak ordaindu zuen ur-hodia pasatzeagatik eta horrek bidea pribatua dela aurreuposatzen du.

**Inbentarioa egiteko garaian ez dira kontuan izaten honelako jokabideak, udalak garai horretan ez baitzuen informaziorik bidea pribatua ala publikoa zen jakiteko.**

Ezarritako irizpideetatik (eskriturak eta iritziak) abiatuz, bide hau herri-bidetzat hartzen da eta honela, alegazioa ez onartzea proposatzen da.

Baita ere aipatu behar da, bide hauek ezin direla azaldu Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide eta bideen erregistroan, erregistro horrek errepideak bakarrik jasotzen ditu eta.

Udalaren ondasun-inbentarioan ere ez dira azaltzen bide hauek, orain arte ez baita izan egindako bide-inbentariorik. Behin betiko dokumentua onartu ondoren, orduan izango da beharrezkoa den inbentario hori eta ondorioz jabetzaren ziurtagiria.”

Horren ondorioz, zerbitzu-batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena aurkezten dio:

“**Lehenik**. Azterlana egin duen ekipoak emandako txostenaren arabera, aurkeztutako alegazioak ebaztea.

“**Bigarren**. Beasaingo udalerriko landa-lur bideen azterlana behin betiko onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

**7.- ERREGISTROA ERATZEA.** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei buruzko erregistroa eratzea.

Alkatea jaunak, Imanol Aranburu gizarte-ongizateko batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Animalien kasuan eta zehazki txakurren kasuan gertaera batzuk izan dira, hala nola, txakur batek bestea akabatu, erasoak...Bizilagun batzuen eskaera zegoen txakur hauekin zerbait egiteko. Espainia mailan Lege bat eta Eusko Jaurlaritzako Dekretua daude Udalak bultzatzen dituen txakur hauentzat erregistroa sortzeko eta txakur horiek edukitzeko lizentzia emateko. Prozesu hori orain martxan jartzen dugu eta beraz proposatzen dugu arriskutsuak izan daitezkeen animaliei buruzko erregistroa sortzea. Hori egiten denean idatzi bat bidaliko zaie txakur-mota hauek dituzten jabeei eta epe bat emango zaie behar diren baldintzak bete eta dokumentuak Udaletxean aurkezteko, gero lizentzia eman ahal izateko.

Proposamena ondorengo da:

### **“AURREKARIAK**

Abenduaren 23ko 50/1999 Legea, Arriskutsuak izan daitezkeen Animaliak edukitzea arautzen duena, 6. artikuluan adierazten du, udalerrri edo eskuduntza duen organo bakoitzean, Arriskutsuak izan daitezkeen Animaliei buruzko Erregistroa egon behar dela, espezie desberdinak kontutan izanik. Gauza berdina dio, martxoaren 22ko 287/2002 Erret Dekretuak.

Horren ondorioz, Batzorde honek Udaltzatza Osoari ondorengo proposamena egiten dio:

**Arriskutsuak izan daitezkeen Animaliei buruzko Erregistroa sortzea, honekin batera doan edukiarekin, aipatutako Legearen 6. artikulua dioena betez.**

**ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIEN  
INSKRIBATZEA  
INSCRIPCIÓN DE ANIMALES POTENCIALMENTE PELIGROSOS**

**Erregistro-zenbakia / Nº de Registro:**

**Jabearen datuak / Datos del propietario**

---

**Izena / Nombre:**

**Helbidea / Dirección:**

**Udalerrria / Municipio:**

**NA / D.N.I.:**

**Animaliaren datuak / Datos del animal:**

---

**Espeziea / Especie:**

**Arraza / Raza:**

**Identifikazio-zenbakia / Nº de Identificación:**

**Bizilekua / Lugar de residencia**

**Zertarako**

Dedicado a

**Gizakiekin bizitzeko**

Convivencia con seres humanos

**Babeserako**

Guarda o protección

**Beste batzuk**

Otros

**Jakinarazpena**

Comunicación

**Salmenta**

Venta

**Eskualdatzea**

Traspaso

**Dohaintza**

Donación

**Lapurreta**

Robo

**Heriotza edo galera**

Muerte o pérdida

**Osasun-liburuxka / Cartilla sanitaria:**

---

**Erantzukizun Zibileko Asegurua / Seguro de responsabilidad civil (120.000 €):**

**Oharrak / observaciones:**

Beasain, (e)ko ren a  
Erregistroko Arduraduna”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

**8.- BIZTANLEEN ERROLDA.** 2003ko urtarrilaren 1eko erreferentziarekin biztanleen erroldaren kopurua onartzea.

Alkate jaunak biztanleen udalerroldaren urteroko berrikusketaren berri eman du: “Gai hau lehenago aurkeztu beharrekoa zen eta atzerapenarekin gabiltza, baina legez onartu egin behar dugunez horregatik sartu da gai--zerrendan:

*Al 1 de enero de 2003, el número de habitantes empadronados es de 12.339. Las altas desde el 1 de enero del 2002 al 1 de enero del 2003 son 514 y las bajas, 424. Los nacimientos han sido de 114 y las defunciones, 95. Hoy se puede decir que el número de habitantes es alrededor de 12.450. En lo referente a nacimientos podemos decir que seguramente tendremos unos 25 más que el año pasado.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

### **9.- IGARTZA MONUMENTU-MULTZOAREN KUDEAKETA.**

- a- Igartzako monumentu-multzoaren batzorde berezia eratzea.
- b- Igartzako monumentu-multzoaren batzorde teknikoa eratzea.

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du: “

IGARTZAKO MONUMENTU-MULTZOA KUDEATZEKO SISTEMAZ ETA  
ORGANOEZ EGINDAKO PROPOSAMENEN AGIRIA

#### **I.- SARRERA.**

Igartzako Monumentu-multzoa, udalerriko kultura-ondarerik garrantzitsuena da, kanporanzko distirarik handiena eskaintzen duen

kokagunea da eta bertan biltzen dira beasaingarren nortasun historikoaren erreferentzia nagusienak.

Duela hamar urtetik hona, Beasaingo Udalak, bere sail desberdinen bitartez, Gazteria, Kultura, Hirigintza, etab., Igartza berreskuratzeko lehen urratsak izan diren esku-hartze puntualak egin izan ditu. Horretarako, Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia herri-erakundeak eta Kutxaren Gizarte Ekintza, Goitur, Aranzadi Zientzi Elkarteak, Eusko Ikaskuntza, eta gisako bestelako erakundeak izan ditu laguntzaile.

Berreskuratze- eta gizarteratze-jardunbide horretan, hiru jarduera-esparru azpimarratu behar dira:

- **Arkitektura-berreskurapena:** Jauregiaren fatxadak eta patioa berreskuratzea, beheko oina zaharberritzea, Errota eta alboko errotariaren etxebizitza zaharberritzea, Dolare etxearen inguruko hirigintza.
- **Historiaren ikerkuntza:** Arkeologi indusketak jauregiaren barruan. Agirietako erreferentzien bilaketa. Burdinolaren aurkikuntza.
- **Monumentu-multzoa gizarteratzea:** Diaporama egin eta ikusgai jarri, jauregian erakusketak jarri eta ospakizunak egin. Errota museo bihurtu. Turismo informazio-puntua jarri eta bisita gidatuak antolatu. Argitalpenak egin eta inprimakiak atera. Web-gunea sortu.

Alabaina, esan beharra dago, jardunbide horretan zehar egindako lorpenik handiena, Igartzako Monumentu-multzoko eraikinak udal-jabetzapean jartzeko eskuratzea izan dela. Eraikin horiek herriaren jabetza-titularitatearekin jartzea, udalerrak etxebizitzaren arloan zituen beharrezkoak eta kirol-instalazioenak hein batean bederen arintzeko Igartza inguruan gauzatutako hirigintza-eraldaketari esker egin ahal izan da, aldi berean bizileku-erabilpenekin bateragarriak ez diren industri jarduerak hirigunetik kenduz.

Igartzako Monumentu-multzoa, Beasaingo sare hiritarrean sartuta gelditu da eta udal-jabetzakoa izanik, Beasaingo Udalak, behin betiko bulkada eman nahi dio multzo horrek udalerraren interesentzako gizarte- eta kultura-arloko neurririk egokiena har dezan. Helburu hori udalerraren helburu estrategikoetako bat izanik eta berak duen neurriari begiratuta, Igartzako batzordea sortzea erabaki da, arlo horretako ekimen guztiak zentralizatu eta koordinatzeko eta berreskurapen-jardunbideari beharrezkoa duen dinamikotasuna emateko.

Aurreko guztiaren bidetik, agiri honek, Igartzako Monumentu-multzoaren kudeaketarako diseinu eta zuzenbide-markorik egokienak jasotzen ditu. Horien bidez, Beasaingo Udalak, bere ordezkarien bitartez eta beste herri-erakunde nahiz erakunde pribatu batzuen partaidetzarekin, behar diren baliabide tekniko eta ekonomikoak jarriko ditu Igartzak inolako zalantzarik gabe merezi dituen gizarte- eta kultura-arloko sona eta ezagutza izan ditzan.

## **II. KUDEAKETA-ORGANIGRAMA.**

Igartzako Monumentu-multzoaren berreskuratze-, ikerkuntza- eta gizarteratze-lanak bultzatzeko udalak azaldutako borondate erabakigarri eta frogatuak, hein handi batean, legeriak, toki-jardunbideak edo erregimen lokalak batez ere, tokian tokiko erakundeen eskumenak garatu eta gauzatzeko eskaintzen dituen aukera guztien artean, kudeaketa-eredu bat hautatu beharra ekarri du. Esan beharra dago noski, eskumen horien artekoa dela bereziki tokian tokiko kultura eta historiako ondarea gordetzearen ardura.

Ikuspegi horretatik abiatuta eta erabaki-ahalmenak, legez, kasuen arabera, Alkate jn.ari, Gobernu-batzordeari edo Udalbatzari emanak direla kontuan hartuta, proposatzen den organigrama honako hau da:

1.- IGARTZAKO MONUMENTU-MULTZOAREN BATZORDE BEREZIA.

2.- IGARTZAKO MONUMENTU-MULTZOAREN BATZORDE TEKNIKOA.

3.- IGARTZAKO MONUMENTU-MULTZOAREN KOORDINATZAILEA.

**III.- IGARTZAKO MONUMENTU-MULTZOAREN BATZORDE BEREZIA.**

**Proposatzen den organigramaren gailurrean dago eta Igartzako Monumentu-multzoaren garapen eta kudeaketarekin zerikusia duten arlo eta atal guztiekiko erabaki-ahalmena duen organoa izango da, bere erabakiak horretarako eskuduntza duen udal-organoaren behin betiko onespenean jartzearen kalterik gabe.**

Toki Erakundeetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Zuzenbide Jardunbideko Araubidearen 124.3 artikulua erregulatutako Batzorde Informatzaile Berezia izanik, batzordearen eraketa Udalbatzari dagokio. Eraketa-erabakian, zeintzuk osatuko duten zehaztuko da zehatz-mehatz, baina aipatutako Araubideko 125. artikuluan aipatzen diren arauak bete beharko dira.

Horretarako, Igartzako Batzorde Bereizia, ondorengoek osatuta eratzea proposatzen da:

**Lehendakaria:** Udaleko Alkatea edo berak ordezkotzen duen zinegotzia.

**Batzordekideak:** Udala osatzen duten zinegotzietan talde politikoek dituzten ordezkotzen proportzioan banatuko dira.

**Idazkaritza:** Udaleko idazkaria edo berak ordezkotzen duen funtzionarioa edo koordinatzailea.

Batzordeburuak egoki iruditzen zaion edozein pertsonari ere bileratara etortzeko baimena eman lekioko. Baimen hori batzordeak berretsi egin beharko du.

### **Eskuduntzak eta ahalmenak.**

Igartzako Monumentu-multzoarekin zerikusia duen gai ororen erabaki-proposamenak onartu behar dituen Batzorde hori izango denez, azken erabakiak dagokion udal-organoari, Udalbatzari, dagozkion arren, bistakoa da noski bere eskuduntza Igartzarekin zerikusia duten mota guztietako jardunbide eta jarduerari dagokiela.

Eta eskuduntza hori behar bezala erabiltzeko, besteren artean, ondorengo erabaki-ahalmenak eman behar zaizkio:

- Igartzako plan estrategikoa.
- Egun dauden eraikinen berreskuratze-proiektua.
- Inguruaren hirigintza-proiektuak.
- Erabilpen-esleipenak. Hirigintza-planak eta ordenantzak.
- Gastuen onespina.
- Ikerkuntzak.
- .....

Batzordea eratzerako Udalbatza Osoak onartzen duen erabakian argi eta garbi zehaztuta gelditu behar duten gai batzuk hauek dira: Batzordeak izango dituen helburuak eta ahalmenak. Hori hain zuzen ere, beste udal-batzordeetatik eta beren eskumenetatik zehatz-mehatz mugatuta gera dadin egin behar da.

Edozein kasutan ere, Udaleko beste batzorde batzuek – Hirigintzakoak, Obretakoak, Kulturakoak, eta beste batzuek – Igartzarekiko dituzten ezinbesteko zereginak eta Igartzako Batzorde Bereiziari esleitzen zaizkionak,

beste batzordeetako buruek edota partaideek une jakinetan edo gaietan parte hartuz ebatz daitezke.

Ez da ahaztu behar noski, Batzorde horren bileretara joateko eskaera edo gonbita egin lekiekeela beste batzuei ere, hala nola, udaleko pertsonalari, udalbatzako kideei edota gai zehatz edo jakin baten berri eman behar duen beste edozein pertsona edo teknikariri.

Gero proposatuko denaren arabera, Koordinatzailearen ahalmenen artean, Igartzako Batzorde Bereziaren bileretara joatekoa egongo da.

### **III.- IGARTZAKO MONUMENTU-MULTZOAREN BATZORDE TEKNIKOA.**

Batzorde Teknikoa, Batzorde Bereziaren menpe egonik, aholkuak emateko eta proposamenak egiteko organo moduan sortzen da. Bere eginkizunak zeharo teknikoak izango dira, beraz, Igartzako Monumentu-multzoaren kudeaketa eta garapen zuzen eta egokiarentzako ontzat beharrezkoak ikusten dituen jarduera eta erabaki guztiak, Batzorde Bereziari igorriko dizkio.

Batzorde Bereziak izendatuko duen Batzorde Tekniko hori, ondorengoa izan daiteke:

**Batzordeburua:** Alkatea edota berak ordezeko izendatzen duena.

#### **Batzordekideak:**

- Koordinatzailea
- Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Goreneko Kultura Saileko 2 ordezkari.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko ordezkari 1.
- Aranzadi Natur Zientzia Elkarteko ordezkari 1.
- Herriko aditu 2 (1 iraunkorra eta bestea gai berezietarako, adibidez arkitektoa).

**Idazkaritza:** Koordinatzailea idazkari.

**Funtzionamendu, deialdi, gehiengo, eta gisako ataletan, udal-batzordeen funtzionamendua eraentzen duten arauen gisakoez eraenduko da, zentzu horretan har daitezkeen erabakien kalterik gabe.**

**Eskuduntzak eta ahalmenak.**

Bere jarduera-esparrua Batzorde Bereiziaren berbera denez, esleituko zaizkion aholkularitza- eta proposamen-ahalmenak, gisa berekoak izango dira baina zehaztasun handiagokoak.

Besteren artean, ondorengoak izan behar lituzke:

- Egun dauden eraikinen berreskuratze-proiektua.
- Inguruaren hirigintza-proiektuak.
- Eraikinen erabilpenen azterketak.
- Hirigintzako egitasmoen eta ordenantzen egokitzapena.
- Ikerkuntzak.

#### **IV.- KOORDINATZAILEA.**

Batzorde Bereiziaren menpe zuzen-zuzenean izanik, Koordinatzailea izango da Igartzako Monumentu-multzoaren kudeaketa guztia dinamizatzeko ardura duena. 16 orduko lan-jarduna izango du astean, lau egunetan zehar banatuta.

Kontratazioa, kontratu administratibo baten bidez egingo da.

Bere eginkizun zehatzak, egiten den kontratuan jasoko dira xeheki.

- Igartzako Batzorde Bereizia eta Teknikoa koordinatu eta dinamizatzea.
- Igartzako plan estrategikoa egitea.
- Bideragarritasun ekonomikoen azterlanak egitea.
- Baliabide ekonomikoak bilatzea.
- Igartzako Batzorde Bereziak eginkizuntzat agindu lekizkiokeen lanak.

#### **V. XEDAPEN IRAGANKORRA.**

Plan Estrategikoa eta erabilpen- eta kudeaketa-planak definitzen ez diren bitartean, Kultura-batzordeak, bere lan, jarduera eta kultura-arloko programazio-atalek, jaietakoak, turismokoak eta abar garatzen jarraituko du, gaurdaino egin duen moduan. Jarduera horien erantzukizuna Kultura-batzordeak izango du, Igartzako Batzorde Bereziarekin harreman estuak dituela lan eginez.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jn.ak (EB/IU): Bai

Julio Herreros jn.ak (PP): “De acuerdo”.

Jose Antonio Sanchez jn.ak (PSOE-PSE—EE): “No encuentro o no se especifica lo que habíamos hablado de que la figura del coordinador no era de dedicación exclusiva, etc.”

Alkate jn.ak (EAJ/PNV-EA): “No porque decidir cómo tiene que ser la figura del coordinador es misión de la comisión especial.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

**10.- MOZIOA.** “Gesto por la Paz” en mozioa, Alkatetzak sinatutakoa.

Alkate jn.ak (EAJ/PNV-EA): “En la documentación que se se entregó había unas pequeñas correcciones. Por ello ahora se presenta el texto corregido. En la documentación que se repartió para el Pleno, había una frase que en castellano estaba mal. El texto correcto es el siguiente: “Miles de personas en el País Vasco y Navarra, viven bajo una permanente amenaza de muerte, provocada por el entramado violento de ETA.”

Jarraian Alkateak mozioa irakurri du:

**“BEASAINGO UDALAK APROBATU AHAL IZATEKO MOZIO PROPOSAMENA.**

Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak hamasei urtetik gora daramatza giza eskubideen babes eta aldarrikapenen alde, bizitzekoa bereziki, gizartea sensibilizatze aldera. Harrezkero izan da eta bada, hiritarrok eskubide hauen urraketa salatzeko bide.

Azken urteotan, indarkeria izkutu eta isila ari dira garatzen, euren biktimak beldurrarazten eta inguru pertsonaletik isolatzen... Izuikara baliatuz, nork bere jarrera politikoei muzin eragiten die edota ogibidearen zuzentasunaz dudatan jartzen ditu biktimok. Indarkeria mota honi Bakearen Aldeko Koordinakundeak jazarpen indarkeria deritzo.

ETAre indarkeriazko sareak Euskadiko nahiz Nafarroako hainbat pertsona mehatxupear izaten saiatzen dira. Azken baten, estrategia honek helburu

zehatza du: pertsona askoren beldurra eta honen ondorioz euren isolamendua lortzea, dela eraso zuzenen bitartez, dela mehatxuak eta jazarpenaren bidez, hauen erru bakarria iritzi edota lanbide zehatz batzuk gauzatzea izanik. Jazarpen indarkeria honek pertsona baten askatasun eta bizitzeko eskubidearen kontrako eraso bat izan ez ezik, guztion elkarbizitza eta askatasunaren aurkako eraso larria ere bada izan.

Erakundeek eta alderdi politikoek, bat eginda, bilatu behar dituzte konponbideak, baina gainontzeko guztiok ere indarkeria mota hau salatu eta jendaurrean arbuiatu egin behar dugu, hala nola sufritzen dutenei gure elkartasun eta hurbiltzea erakutsi. Zio hori dela eta, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak jazarpen horren kontrako kanpainan dihardu, tokian tokiko ekitaldiak antolatuz, herritarrok elkartasun bideak izan ditzagun.

Oraingo honetan, Goierriko Bakearen Aldeko taldeen Batzordeak honelako ekitaldi bat burutuko du. Beasaingo Loinazko San Martin plazan, datorren abenduaren 12an, ostirala, arratsaldeko 8etan, jazarpen indarkeria salatzen eta bere biktimei elkartasuna erakusteko ekitaldi bat egingo dugu, Si te amenazan, nos agreden. Mehatxua zuri eraso guri. No a la violencia de persecución" duen lelopean.

Honelako ekintzen helburuak hiru dira:

- isila baina ikaragarria den jazarpen indarkeriaz sentsibilizatu,
- oso ondorio dramatikoak dituen bortizkeria hau salatu. Bai biktimek bai gizarteak berak ere pairatzen dituzte ondoriook, eta
- indarkeria honen biktimei gu guztion elkartasuna erakutsi, duten isolamendu eta zaurgarritasun sentimendua arindu nahian.

Hau guztia dela -eta, Goierriko Bakearen Aldeko taldeen Batzordeak,

### **ESKATZEN DU:**

1. Aurrean duzuen testua, udalbatzan dauden talde politiko guztiei jakinaraz dakiela eta, eztabaidatu ondoren, Udalaren atxikipena aproba dadila, bertako helburuak izenpetuz.
2. Atxikipena aprobatekotan, udalbatzako ordezkari batek ekitaldian parte har dezala.
3. Atxikipena aprobatekotan, ekitaldi honen berri eman dadila, bai eta publikoki udal honen atxikipena hedatu ere, beti ere ekitaldi honetan herritar guztiei gonbitea eginez.

Gure eskaera kontuan hartuko duzuelakoan eta alde zuzenetik zuten arreta eskertuz, agurtu egiten zaitu,

Izptua.: Edorta Martínez Fraile y Félix Velázquez Ramos  
Goierriko Bakearen Aldeko taldeen Batzordea”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña (EB/IU): “Estoy de acuerdo, pero creo en la igualdad de todas las víctimas.”

Julio Herreros (PP): “Yo tenía preparada una buena respuesta y a última hora nos vienen con el cambio, para llamar “entramado violento de ETA”. No se dice los terroristas de ETA. Como partido popular me voy a abstener porque lo encuentro totalmente opaca y a falta de un posicionamiento claro en contra del terrorismo. En este país, hablar simplemente de violencia y persecución es decir muy poco a cerca del paradero del terrorismo que sufrimos muchos vascos, por el hecho de no pensar en clave no nacionalista. Nos gustaría saber que significa para ustedes violencia de persecución y quien ejerce, porque de moción sólo se desprende que existe una violencia de persecución ejercida por algún fantasma. No se aclara el agente perseguidor. Otra cuestión que me gustaría saber, es si asesinato es violencia de persecución. Les recuerdo que tan sólo hace 10 meses se asesinó a Joseba en Andoain. Este hecho, ¿es también violencia de persecución?. Antes no se les nombraba para nada y ahora ¡se les trata con un cariño!. ¡entramado violento de ETA!, ¡si son unos terroristas!.

José Antonio Sanchez (PSOE-PSE-EE): “Nosotros asumimos la moción que presenta “Gesto por la Paz”.

Alkatea (EAJ/PNV-EA): “Gure aldetik gauza bat esan behar dugu. Tomar postura solamente por este tipo de violencia de persecución, es necesario y lo apoyamos, pero queremos pedir a “Gesto por la Paz”, como organización pacifista y defensora de los derechos humanos que extienda su trabajo y sensibilización hacia otras vulneraciones de dichos derechos, que también son una ataque frontal contra la convivencia y la democracia. Se está extendiendo una violencia “legal”, por defender democráticamente ideas diferentes. Se criminaliza a políticos. Se amedrenta con dudosas reformas legales para evitar contrastes y debates de ideas, todo ello con el apoyo de la mayoría de los medios de comunicación y el silencio de muchos colectivos defensores de la convivencia y democracia. En nombre del terrorismo se justifica redadas indiscriminadas de jóvenes discrepantes, se detiene y encarcela como medida preventiva y se identifican actividades y proyectos culturales como terrorismo. Todo el que no sigue la doctrina oficial es tachado de disidente y amenazado con la pena de privación de libertad. Hasta los empresarios, son amenazados por no comulgar con el pensamiento único. El linchamiento mediático es

asfixiante y está coartando la libertad física y psicológica de muchos. En nombre del terrorismo, se justifican matanzas como en Palestina o invasiones como en Irak, y siguiendo la doctrina del PP, espero que sea consecuente el Sr. Aznar y nos mande a los marines a una zona de Europa que son terroristas. Ni que decir la violencia de género, que cada año produce un número elevado de muertes por asesinato, la tragedia de la pateras y de la inseguridad ciudadana que cada día nos cuesta más muertes y asesinatos. Estamos en una democracia de muy bajo nivel, que está narcotizando a muchos ciudadanos. Por ello pido a "Gesto por la Paz" sigan con su trabajo de sensibilización y amplíen el ámbito de actuación hacia áreas de los derechos humanos que se conculcan sin ningún rubor."

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, PSOE-PSE-EE, EB/IU)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PP)

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnez, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

## **11.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

2003ko urriaren 28tik 2003ko abenduaren 1era emandako Alkatezaren ebazpenen berri eman da.

### **PREMIAZKO PUNTUA**

Alkatea: "Antes de pasar a ruegos y preguntas, solicitaría el que se tratara una declaración institucional sobre el día del voluntariado, ya que mañana día 5 de diciembre de 2003, es el día del voluntariado y el Consejo Vasco del Voluntariado nos manda un documento para su adhesión.

Se somete a votación el tratar como punto de urgencia este tema y por unanimidad se aprueba.

Alkateak adierazpena irakurri du:

**"Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak ondorengo adierazpen instituzionala onartu du, abenduaren 5ean Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta:**

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 1985eko abenduaren 17ko 40/212 erabakian, gonbidapena egin zien estatuetako gobernuei urtero ospa zezaten, abenduaren 5ean ospatu ere, Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Boluntarioen Nazioarteko Eguna.

Boluntariotzaren printzipioei buruzko adierazpenean -gero ere berretsita baitago Milurtekoaren Adierazpenean, besteak beste- Nazio Batuen Erakundeak honako hau azpimarratu du: "Boluntarioek emandako zerbitzua ia-ia zibilizazio eta gizarte guztien baitakoa izan da. Zentzu zabalean definituz gero, gizonezkoek eta emakumezkoek egindako ekarpena da, Irabazi-asmorik gabe, dohainik eta izaera profesionalik gabe burututako ekintzetan gauzatzen dena, auzoen, komunitatearen edo, oro har, gizartearen onura lortzeko xedez Era askotara agertzen da, elkarlaguntzari lotutako aspaldiko ohituretatik hasi, eta krisialdiei ematen zaizkien erantzun komunitarioetaraino, gizarte-sorospena, gatazkak konpontzea edo pobrezia erauzteara xede duten abangoardiako ekimenetan barrena".

Euskadin, ezinbestekotzat jotzen dugu boluntariotza, ondoko helburuak dituen estrategiaren nahitaezko osagarri: pobrezia gutxitzea, garapen jasangarria, osasuna, hezkuntza, kultura eta kirola sustatzea, hondamendien prebentzioa eta kudeaketa, eta gizarteratzea, eta bereziki, gizarte-baztertzea eta diskriminazioa, edozein motatakoa dela ere, gainditzea.

Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna garai egokia da euskal gizartean boluntario ekintzetan musu-truk diharduten milaka pertsona horiek gogoratzeko. Aukera aparta da boluntarioei egunero-egunero ematen diegun laguntasuna berretsi, eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari egiten dioten ekarpen baliotsua aitortzeko. Eta boluntariotzaren era guztiak bultzatzeko eguna ere bada, haur, gazte, heldu, ezindu, gutxiengo, etorkin eta, hitz batez, gizarteko sektore guztiei mesede eta onura dakarkien elkartasunezko jarduera baita."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

## **12.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

Alkateak alde zuzenetik, hitza eman ondoren, Alfonso Segade PSOE-PSE-EE zinegotziak, ondorengoak esan du:

"Llevamos cinco meses de legislatura y el grupo municipal socialista, nos

encontramos, si no despistados, ligeramente preocupados. Ha sido norma de este Ayuntamiento desde que yo conozco, desde la época de Iñaki Ergüin, de EA, hasta la última legislatura de Jon Jauregi, de unas relaciones cordiales, de una manera de entender la política municipal participativa, de una manera amable, como dice el Lehendakari en el Plan que tiene ahora y de un entendimiento con discrepancias lógicas, porque aquí unos estamos a la izquierda, otros a la derecha, pero siempre con una manera de entender las cosas. Nuestra preocupación, se va a las formas. Seguramente estemos equivocados, pero preferimos exponerlo para si de alguna manera se puede solucionar esto. Nosotros cuando pedimos información, la pedimos porque tenemos derecho a hacerlo, porque la Ley nos ampara y es obligación del Sr. Alcalde el facilitarla. El que nos invite la Alcaldía para darnos la información, se lo agradecemos, pero pensamos que no es el camino adecuado. Hay cosas que vienen de Alcaldía, pero otras, sobre todo cuando hay hechos consumados, tenemos obligación, el deber y el derecho de preguntarlas públicamente y así se debe de informar, salvo que haya una razón para no hacerlo, lo cual nosotros interpretamos que se está practicando una política con cierta opacidad, en la información y en la transparencia de lo que se realiza en el Ayuntamiento. Cuando pedimos que la gestión se haga con informes técnicos y jurídicos es por alguna razón. Nosotros somos realmente conscientes de que somos oposición, una minoría, y que el Alcalde por suerte cuenta con una mayoría y algo más, pero, el Sr. Alcalde ha sido enseñante, conoce la figura del tutor y nosotros ni somos alumnos ni estamos en la gela, con lo cual no necesitamos tutoría. Somos oposición, pequeña, pero la que los ciudadanos han querido dar con absoluta libertad. Por lo tanto, nos gustaría que las formas fuesen más amables, hubiese mayor transparencia si es posible cuando se pide información, y el ruego es al Sr. Alcalde, que no estropee en cinco meses lo que en veinte años otros con gran esfuerzo han conseguido mantener.”

Alkate jn.ak : “Alfonso, te agradezco tus sugerencias. Lo que pasa es que quizás un hecho concreto lo estás elevando a categoría y a actuación normal y corriente. Sabes que por tradición funcionamos a través de las comisiones y cada comisión tiene una dinámica diferente. Todos los grupos municipales están en esas comisiones y previamente a la convocatoria el técnico municipal se pone en contacto con sus representantes para saber si en la fecha prevista se encuentran disponibles. Por otra parte siempre hemos dicho que toda la documentación está a vuestra disposición y que la podéis solicitar y en ese sentido creo que está a vuestro alcance toda la información. El trato con los distintos políticos es similar y se ha convocado la Junta de Portavoces para tratar temas de relevancia. Hace pocos días pregunté en la comisión de Hacienda si sería necesario convocar una Junta de Portavoces para el tema del Presupuesto y se consideró que no era necesario. Personalmente me encargaré de entregar la documentación que allí se entregó

a vuestro representante. Yo si que te agradecería el que dijeras si no es aquí personalmente, en qué temas queréis que colaboremos y se os dé la información completa para que decidáis hacer oposición o no hacerla. Eso es lo que os pediría. Yo creo que hay un tema que está ahí, y que la semana que viene se dilucidará. Ese es el único punto en el que no se ha dado la información completa porque no está aprobada. Hacer de ese hecho categoría de habitualidad, me parece una exageración. En la comisión de urbanismo muchos temas llegan en el último momento, pero también se da la oportunidad de retrasar una semana las decisiones, si alguien necesita más tiempo. Me gustaría hablar contigo en público o en privado, y siempre he dicho que están todas las puertas abiertas.”

Pello Garaialde jn.ak (EAJ/PNV-EA): “Me gustaría que diferenciaraís si vuestras alusiones se refieren a todos los presidentes de comisión o sólo a Alcaldía. No se puede confundir una parte con el todo. Yo creo que las presidencias de las comisiones estamos abiertas y estamos colaborando y creo que de una forma amable y con una transparencia total. Esa es por lo menos mi idea.”

Iñaki Saldaña jn.ak (IU/EB): “Cuándo has hablado de la mayoría y algo más, ¿te referías a la posición de EB?. Yo no hago ningún camello con el PNV. Es más, soy oposición pura y dura y me encuentro bastante solo en este Consistorio, ya que aunque vosotros os consideráis de izquierdas yo no os veo como tal.

## BISTA ALAI KALEKO ETXEAK

Emakume herritar batek, Bista Alai kaleko etxez informazio berririk ba al duen galdetu dio Alkate jn.ari.

Alkate jn.ak: “Desde la última actuación judicial en la que se decidió retrasar el juicio no sé nada, y pienso que ustedes también sabrán eso porque me consta que su abogado estuvo presente. Yo personalmente he solicitado una cita con la jueza para transmitirle la inquietud social que existe y que por ende también tiene este Ayuntamiento respecto de la situación en que se encuentran las personas desalojadas de su domicilio habitual.”

Beste herritar batek: “Quisiera saber si en esa comparecencia sólo se va a hacer referencia a las personas desalojadas del edificio nº 2 o a más. Hay más gente afectada. También están los de los edificios 4, 6, 8 y 3. ¿El tema es desalojo o precariedad en la vivienda?”

Alkate jn.ak: “Yo al juez lo que le voy a transmitir es la alarma social existente para que ella lo tenga en cuenta. A nosotros como Ayuntamiento nos compete garantizar el que todos los ciudadanos tengan un techo.”

Herritarrak: “Espero que se haga referencia a todo el barrio, ya que todo él se encuentra afectado y no sólo el nº 2 como aparece en los periódicos.”

Alkate jn.ak: “El abogado que os defiende es el que mejor os puede aconsejar. Yo siempre estaré dispuesto a transmitir la información que poseo.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta bostean amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.